

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko "Santa Barbara plazaren ingurua" 26. Hiri Antolamendurako Plan Berezia behin betiko onestea

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udalbatzak 2015eko irailaren 25ean egindako ohiko osoko bilkuran:

Gaia: Gasteizko "Santa Barbara plazaren ingurua" 26. Hiri Antolamendurako Plan Berezia behin betiko onestea.

ERABAKI-PROPOSAMENA

Gasteizko "Santa Barbara plazaren ingurua" 26. Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren proiektua ikusi da, zein Jose Antonio Barroso Aspe arkitektoak aurkeztu baitu, Estudio de Arquitectura Basa SLren izenean eta hura ordezkaturaz, Gasteizko Udaleko Hirigintza Sailak eskatuta.

Gasteizko Udalbatzak 2014ko urriaren 31n egindako osoko bilkuran behin betiko onespenera eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Santa Barbara plazarekin lotuta egin nahi den aldaketari. Aldaketa honetan datza: hiri kontsolidatuan kudeatzeko eremu berri bat mugatzean, horretarako, dagokion eremu-fitxa zehaztuta, eta 5.03.39 artikuluan ("Gainerako berdegune publikoen eta espazio libre publikoen baldintza partikularrak") zein 5.03.50 artikuluan ("Hiriko bide-sarearen erabileraren baldintza partikularrak") 8. eta 9.atalak gehitzean, hurrenez hurren. Hori guztia Gasteizko Udaleko Hirigintza Sailak eskatuta idatzi den proiektuarekin bat.

Santa Barbara plazaren inguruko espazio publikoak berrantolatu, hobetu eta dinamizatu beharra dago, ingurua oinezkoentzako bihurtuz eta ibilgailuez arinduz, gerora hirirako espazio libre zabala sortzearen; horretarako, aparkalekua eta zamaketa-lanak lurperatu behar dira.

Plan Orokorrearen aldaketa honetan datza: batetik, hiri kontsolidatuan eremu berri hau sartzeari (proiektuko eremu-fitxan definitutakoaren arabera); bestetik, bi paragrafo (8.a eta 9.a) gehitzea 5.03.39 artikuluan ("Gainerako berdegune publikoen eta espazio libre publikoen baldintza partikularrak") zein 5.03.50 artikuluan ("Hiriko bide-sarearen erabileraren baldintza partikularrak"), hurrenez hurren Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrearen Erabileren Arau Partikularren barruko espazio libreen erabileraren eta bide-sarearen erabileraren erabilera xehatuen baldintza partikularrei dagozkienak.

Aldaketa horrek Santa Barbara plazari buruzko hiri lurzoruko eremu-fitxa berria sortzea zekarren, Hiri Antolakuntzarako 26. Plan Bereziaren bitartez garatuko dena eta helburu hauek izan behar dituena: Santa Barbara plazaren eta azoka plazaren ingurua berriro urbanizatzea eta oinezkoentzako bihurtzea; hiri espazio hori herritarrak egon eta igaro daitezkeen eta aisialdirako berreskuratzea, azaleko aparkalekuak eta ibilgailuak kenduta; espazio hori oinezkoentzako merkataritza ibilbide baten barruan sartzeari, inguruko ekonomia jarduera biziberritzeko asmoz.

Plan Bereziaren helburuen artean hiri-egitura hobetzea nabarmendu behar da. Horretarako honako aurreikuspenak egin dira, besteak beste: estazionamendu berriak gauzatzeko operazioak

egiteko aukera, hirugarren sektoreko eraikinak goitik lotuta izatea eta lur azpian zama-lanak egiteko eremuak handitzea.

Gasteizko Hiri Antolakuntzarako 26. Plan Berezi horri dagokion proiektuan jasota dago aldakuntzak eragindako eremua definitzen duen oroit-idazkia, non alderdi hauek aipatzen baitira: haren xedea, aurrekariak, ekimena, haren egokiera eta beharraren justifikazioa, proposamenaren deskribapena, proposatutako plangintza xehatua, hirigintza-arauak, eraikuntza eta erabilerei buruzko ordenantzak eta azterlan ekonomiko finantzarioa, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 27an hartutako erabakiaren haritik, onetsi egin dira Gasteizko "Santa Barbara plazaren ingurua" 26. Hiri Antolakuntzarako Plan Berezia aldatzeko proiektua eta hasierako onespina eman zaio plan bereziari, zeina Estudio de Arquitectura Basa SLk landu baitu Gasteizko Udalak eskatuta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntzan jasotako egiturazko antolakuntzako zehaztapenak era xehekatuan gara ditzan.

Halaber, Plan Bereziari behin betiko onespina eman aurretik bete beharreko baldintza batzuk ere jaso dira Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabaki horretan.

Dosierra jendaurrean jarri zen hogei egunez, ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkezterik izan zezaten.

Iragarkia 2015eko apirilaren 17ko ALHAOn (46 zk.) eta 2015eko apirilaren 10eko El Correo egunkarian argitaratu zen. F. A. Z. jaunak hasierako onspen erabakiaren aurkako alegazio bat jarri zuen alegazioetarako epe barruan.

Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak alegazioa aztertu eta txosten teknikoa eman zuen 2015eko irailaren 2ko datuz, eta alegazioan adierazitakoak ezeztea proposatzen zuen.

Halaber, txosten horrek 2015eko martxoaren 27an egindako Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiak ezarritako baldintzak betetakotzat jotzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko irailaren 4an egindako bilkuran, F. A. Z. jaunak 2015eko apirilaren 15ean aurkeztutako alegazioa ezeztea proposatu zuen, Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egindako txosten teknikoari jarraiki, eta proposamena udalbatzari aurkeztea erabaki.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia. Legeak honela xedatzen du Hiri Antolakuntzarako Plan Berezia 70. artikuluan: Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea da hiri antolatzeke plan bereziaren xedea, eta hori, hain zuzen, plan orokorraren egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoru eremuetan antolamendu xehatua ezarrita egiten du. Halaber, hiri-lurzoruari buruz plan orokorraren agirietan jasotako antolamendu xehatua aldatzeko ere erabil daiteke hiri antolatzeke plana.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen dira plan partzial eta berezien izapidetze eta onspena.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua — 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena hiri antolamenduko tresnen proiektuak onesteko; behin-behineko edo behin betiko onspena ematea, berriz, udalbatzari dagokio.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onspena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua — 123.1.i artikulua ildotik.

Udalbatzaren Araudi Organikoak 213.1 eta 215.1 artikuluetan xedatzen duenez, Hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako antolakuntza plan eta instrumentuak egin eta onesteko prozeduran hasierako onespeneren ondoren iradokizunak edo erreklamazioak aurkeztuz gero, Tokiko Gobernu Batzarrak beharrezko diren txostenak eskatuko ditu horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo. Ondoren, osoko bilkurara igorriko du proposamen hori, honek onartu edo baztertzea erabaki dezan, eta hirigintza planeamenduari behin betiko onespenera ematea erabaki dezan.

Proposatutako planteamenduari bat etorritik, dosierrean jasotako hirigintza-agirietan haren beharra eta egiteko egokiera justifikatuta daudelarik, aipatu diren arauak kontuan harturik, Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak osatua— 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, eta Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak hala proposaturik, Hirigintzako Irizpen Batzordeak hau aurkezten dio udalbatzari:

ERABAKIA

1. Ezezte F. A. Z. jaunak "Santa Barbara ingurua" 26. Hirigintza Antolamenduko Plan Bereziaren hasierako onespeneren aurka 2015eko apirilaren 15ean aurkeztutako alegazioa, Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2015eko irailaren 5ean egindako txosten teknikoan adierazitako zioei jarraiki. Erabaki honen jakinarazpenarekin batera txosten horren kopia igorriko zaio interesdunari.

2. Behin betiko onespenera ematea Gasteizko Santa Barbara plazaren ingurua 26. Hiri Antolakuntzarako Plan Bereziari, zeina Estudio de Arquitectura Basa SLk landu baitu Gasteizko Udalak eskatuta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldakuntza jasotako egiturazko antolakuntzako zehaztapenak era xehekatuan gara ditzan.

3. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

4. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

HIRIGINTZA ARAUDIA

Gasteizko "Santa Barbara plazaren ingurua" 26. Hiri Antolamendurako Plan Berezia

Planaren helburua da Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldakuntzak eragindako eremuan espazioak berrantolatzea eta hobetzea, Santa Barbararen inguruneari dagokionez, ibilgailuak bertatik guztiz kenduta, eta espazioak oinezkoentzat jarrita, hiri ingurunean mugikortasuna hobetzeko.

Aurreikusitako ordenamendua

Proposamena da guztiz garbitzea Santa Barbara plaza, parterreak erabat kenduta, kale guztiak eta inguruak oinezkoentzat jarrita, eta zabalak egiteko eta auzotarrentzat zirkulazio murriztua baimenduta. Sare-bilbea sartzeko proposatu da, oinezkoentzako espazioak eta lorategiok tartekatuta jarri ahal izateko.

Sareta eta ardatzak

Espazio ikaragarri handia daukagu, adar asko dituen. Sareta handi batek baso antolatu eta gardena marrazten du, tokia kolonizatzen eta eskala gizatiarra ematen laguntzen diguna. Bilbea ohikoa da nekazaritzan eta basogintzako jardueran, eta antolatzea, azpieskalak sortzea eta norabidea erraztea ahalbidetzen du.

Antolatzen diren guztiak beteak eta hutsunak osatuko dute tokia hobeto ulertzen lagunduko duen unitatea.

Sareta markatzen dituzten ardatzak: hiriko bideak, plazetako saila

Posta eta Judimendiko hiri-bideek saretan dute euskarria. Posta kalean zehar bi hutsune handi daude, Foru plaza eta Santa Barbara, eta horiek osatzen dute honako hauek betetzen duten hiriguneen saila: Andre Maria Zuria, Postetxea, Foru plaza, Santa Barbara eta Leizaola plaza.

Gainera, azken biak beste zeharkako sailean sartzen dira, formalizatu gabeko bidea osatuz Babesgabetuen plazatik Corte Inglésera, eta hortik Santa Barbarara eta Leizaola plazara. Baimendu egingo da, baita ere, plazako zati bat estaltzea, egun euritsueta hainbat erabilerari bide emanda, umeen jolasak, ostegunetako azoka, musika-emanaldiak eta bestelako jarduera herritarrek.

“Aire zabaleko” azoka eraberritzea, Azoka Plazaren ondoan.

Ostegunetako eta larunbatetako aire zabaleko azoketarako azalera handia behar izaten da. Aurretik, azoka hori eraikinaren hegoaldean egiten zen. Orain, Santa Barbara plazako espazioa garbitu ondoren, azoka hori Azoka plazako iparraldeko fatxadaren aurrean birkokatu nahi da.

Udalaren ingurumen politiken artean tokiko nekazaritza indartu nahi da eta hirian ikusgai jarri. Azoka plazako merkatuak balioa eransten dio hiria inguratu eta babestu ere egin nahi den eta elikagaien iturri den lursailari. Hiriko merkatuak indartzea estrategikoa da Gasteizko etorkizunean biziraupenerako agian ezinbesteko izan litekeen sektore ekonomikoa bultzatzeko.

Hiri-egiturarako proposatutako hobekuntzak

Hiri-egitura hobetzeko honako aldaketak planteatzen dira:

– Oinezkoentzako alderdi handia eratzea, Santa Barbara elementu nagusizat eta ondoko plazak gainerako hiriarekin trantsizio eta lotura elementu gisa hartuta, beste plazekin dagoen loturaren bitartez.

– Plaza espazio publiko gisa berreskuratzea, bertan herritarrek edozein jarduera garatzeko: kulturala, aisialdikoak, jaietakoak, kiroltakoak, haurren jolasgunea. Hainbat etxadi hartu beharko dira, guztiekin super-etxadia osatzeko. Posta kalea eta Santa Barbara plazako alboetakoak super-etxadiaren barneko kale bihurtuko dira, oinezkoentzako erabilerarekin.

– Azoka plazako sarbidea berriro urbanizatzea eta erabiltzaileei egokitzea, iparraldean dauden sarbideei arreta berezia eskainita, urbanizazioaren eta eraikinaren arteko sestrak konponduta.

– Posta kalea oinezkoentzako jartzea eta trafikoa egokitzea, auzokoentzat eta zamalanak egiteko murriztuta, Aldabeko plazatxotik Jose Maria Leizaola plazaraino hirigune osoa zeharkatzen duen oinezkoentzako ardatzari jarraipena emanda. Oinezkoentzako eremu horretatik, plazako erdigunerako sarbideak hobetzea; alboko kaleak oinezkoentzat jartzea. Sistema konektatua askoz ere osoagoa eta erabilgarriago da bakartutako espazio saila baino.

– Plazaren dinamizazioak beste erabilera batzuk eskatzen ditu, esate baterako, espazio bat estalita egotea, markesinaren azpian, bertan oinezkoentzako sarbideak lurrazpiko aparkaleku publikora integratzeko.

– Sarbideko arrampak beste toki batean jartzeko aukera, oraingo txandakako aparkalekuan jartzea berriro:

– Azoka plazako moilarako eta merkataritza-gunerako sarbidea (sarrera eta irteera) Jesus Guridi kalean dagoen arrampa zabaldutik, eta lurrazpian zamalanak egiteko esparru berriak.

– Plaza gorago deskribatutako sailetan integratzea, zatiketa kenduta: Postako hiribidea bertako plaza sailarekin, Judimendiko hiribidea, eta Babesgabetuen plazatik Leizaola plazarainoko zeharkako ibilbidea.

– Plaza antzeko espazio publikoak plazen sailean sartzeko.

- Azalera handiko espazio bati batasuna lekarkiokeen ulergarritasun espaziala.
 - Hiriko azokarako bultzatu nahi diren espazioak gure lurraldean ekoizten diren nekazaritzako produktueterako, aire zabalekoak eta estaliak, eguraldi txarreko egun askotarako. Azoka plazako eraikinaren hurbiltasuna, bertako iparraldeko fatxada ere bultzatu nahi baita.
 - Beharrezkoak diren lorategiak oraingo egoera hobetzeko, zirkulaziorako eta aparkalekue-tarako asfaltatutako azalera handiek itota baitaude. Plaza lehor sailaren kontrapuntu berdea beharko dute izan, eta ahal den neurrian zoladuraren arrasean izan beharko dute, parterre jasoak saihestuta.
 - Haur-jolasgune bat, oro har eskasak izaten baitira hiriguneko auzoetan.
 - Lurrazpiko aparkalekuak egiteari bidea ematea (HAPOren Erabileren arau partikularretan azaldutako baldintzen arabera). Aparkaleku horiek konpentsatuko lituzkete kendutako apar-kalekuen plazak, Udalak gertuko ingurunean aurreikusten dituen operazio horretan eta beste batzuetan oinezkoentzat jartzea proposatzen direnean.
 - Azoka plazako eraikinaren eta Corte Inglésaren arteko lotura, lotura jasoa eta 5 metrotik beherako zabalerako aukerarekin; horrek eskatzen du Azoka plazako presentzia Posta kaleko oinezkoentzako ardatzeraino ekartzea; azokako eraikinerako sarrera berria.
 - Zamilanak lurpean egin ahal izaten direnean (HAPOren Erabileren arau partikularretan azaldutako baldintzen arabera), kendu egingo dira azalean egiten diren zamilanak.
- Aukera emango da plazako azalera zati batean estaltzeko, kanpoaldera lotuta eta estalita, era guztietako jarduerak bultzatzeko erreferentziatzako espazio publikoa sortzeko.
- Ingurune osoa oinezkoentzako jartzea da ordenamenduaren egiturazko elementua, baita bertan dagoen lurpeko aparkalekurako sarbideak hobetzea ere. Gainerako nabardurak gutxi gorabeherakoak dira, trafiko murriztutako bideei eman liezazkiokeen konponbide alternatiboak ez mugatzeko, ezta urbanizatzeko eraikuntza proiektuak sor litzakeen diseinu paisajistiko edo arkitektoniko zehatzak ere.

Eraikigarritasuna

Santa Barbara plazaren inguruneari dagokionez Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldakuntza onartu ondoren, 2014ko ekainean erredakzio talde honexek aurkeztutako dokumentuaren bitartez tramitatuta.

Plan Berezi honen helburuei dagokienez, ez dago horien artean hirugarren sektoreko eraiki-naren hazkundera arautzea, baizik eta ordenamendu zehaztetako ildoak sortzea espazio publikoa, dinamikoa, oinezkoentzat jarritakoa birrantolatzea lortzeko, 2014ko ekaineko Plan Orokorren xedapen aldakuntzak azaltzen duen bezalaxe.

Hirigintza Arauak eta Eraikuntza zein Erabileren Ordenantzak

Jardunean dagoen Plan Berezian jasotako hirigintza arauak eta Hirigintza Arauak eta Eraikuntza zein Erabileren Ordenantzak ez dira aldatu 2014ko ekainean erredakzio talde honexek aurkeztutako dokumentuari dagokionez (Santa Barbara plazaren ingurunean Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldakuntza izenekoa). 2014ko urriaren 31n Gasteizko Udalaren udalbatzak egindako bilkuran onartuta.

Dokumentu horretan azaldu ziren aldakuntza egiteko beharra eta justifikazioa, eta honako aplikazio-parametroak erakutsi ziren:

- Hirugarren mailakok aprobetxamendua 12.000 m²
- Sestra azpiko aprobetxamendua 9.000 m²

Azoka plazako eraikinerako araudi berezia

1. Errotulazioa

– Eraikinaren errotulazio nagusia handizkako merkataritzarako. Esparru horretan sartuko lirateke publikorako instalazioetan 500 m²tik gorako azalera erabilgarria dutenek.

Errotulazioa honako baldintza hauen arabera egingo da:

- Eraikineko lehenengo solairuan dagoen hormigoizko aurrefabrikatua kokatuko da.
- Gai opakuan egingo da eta gainazal-akabera zuriz izango du, eta atzetik argiztatu ahal izango da.
- Merkataritza-zentro bakoitzaren hizki edo logotipo gorpuzdunean egin ahal izango da errotulua, baina erabilitako hizki edo logotipoaren altuera handiena Azoka plazako kartelegoa baino txikiagoa izango da beti, eta inoiz ez metro bete baino altuagoa.
- Bigarren mailako errotulazioa, jardueraren azalera erabilgarria 500 m²tik behera duten Txikizkako Merkataritza aretoetan.

Zuriz egingo da, atzeko zeharrargiak jarrita eta 12 cm.ko hizki gorpuzdunak altueran; akabera gremio bakoitzari lotutako kolorea duen puntu biribila sartzea onartuko da, saltzen den produktu mota zein den jakiteko laguntzen duen piktograma gisa. Adibide gisa:

- gorria - harategia
- urdina - arrandegia
- horia - gaztak
- berde oliba - ozpinetakoak
- berde argia - frutategia
- laranja - oilasko-denda
- arrosa - urdaitegia

2. Eguzki-oihalak fatxadetan.

Plazako eraikinean debekatuta daude, oro har; ez badago baimen puntuala eta arrazoituta, beti ere ordenamenduan eta espazio publikoan eskumena duten Udaleko Zerbitzu Teknikoek aldeko txostena ematen badute, baimenaren bideragarritasuna jasota eta ezaugarriak zehaztuta.

3. Mahaitxoak.

Baimena ematen da ostalaritzarako mahaitxoak plazan jartzeko eraikineko hegoaldeko fatxadaren parean. Santa Barbara plazan mahaitxoak jartzeko Espazio Publikoaren Zerbitzuak emandako aldeko txostena beharrezkoa izango da, urbanizazioaren eta espazioaren amaierako diseinuko konposizio-irizpideen arabera instalazioa baimentzeko edo ukatzeko.

Erabilera baimenduak.

Aplikazio eremuan baimendutako erabilerak OR3-Bigarren Zabalgunea ordenantzak ezartzen ditu.

Gaur egun garatuko diren erabilera xehatuak ondoren definitzen dira.

Aparleku-erabilera:

Galtzadatik kanpoko guneko edo leku irekia da aparkalekua, bereziki ibilgailu motordunak geratzeko edo aparkatzeko erabiltzen dena.

Alderdi horiek egitura arineko markesinen bitartez estaltzea baimentzen da.

Hirugarren sektoreko erabilera

Hirugarren sektoreko erabilera: jarduera pribatua, taldekoa edo publikoa, salgaien salerosketak egiteko, zerbitzu pertsonal, administratiboak, teknikoak, diruzkoak edo ostalaritza sektorean sar daitezkeenak egiteko, ekipamendu komunitarioen, hiriko zerbitzuetako eta garraioetako erabilera globaletan sartutakoak izan ezik.

Eraikuntza araudia

Erregimen orokorra

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak definitutako Eraikuntza araudiaren menpe egongo dira Plan Bereziaren eremu barruko eraikuntzak

Aparkalekuak

Irisgarritasunari buruzko 7/99 legeak eta hori garatzen duen Araudiak eskatutakoa bete beharko da plazen kopuruari eta tamainari dagokienez, baita Kode Teknikoaren DB-SUA dokumentuak eta aplikagarria izan litekeen sektoreko arautegiak eskatutakoa ere.

Gainera, Jarduera sailkatuen gaineko Araudiaren eta kasu honi dagozkion Udal Ordenantzen zehaztapenak beteko dira. Horiek guztiak aztertu beharko lirateke, honako bezalakoak:

– Sailkatutako jarduerak

3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa.

165/1999 Dekretua, martxoaren 9koa, zeinen bitartez Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitako jarduera lizentzia lortzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda finkatzen baita.

Ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, izaera orokorreko arau teknikoak onartzen dituen, eta bizitegirako hiri-lurzoruan jarduera eragozgarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuetara aplikatu daitezkeenak.

2006ko apirilaren 27ko Ebazpena, Energiaren eta meategien Zuzendariarena, Behe-tentsiorako araudi elektroteknikoaren ITC-CT-29 jarraibide teknikoak aplikatzeko jarraibideak ematen dituen, segurtasun elektrikoari eta garajeen aireztapenari eragiten dionari dagokienez.

– Ur hornidura eta isurketak

EKTaren (Eraikuntzaren kode teknikoak) "DB-H Osasungarritasuna" oinarrizko agiria, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua.

Gasteiz Hiriko Urak Hornitu eta Arazteko dituen Zerbitzuak ematea arautzen duen Ordenantza.

– Zarata eta dardarak.

EKTaren (Eraikuntzaren kode teknikoak) "DB-HR Zarataren kontrako babesa" oinarrizko agiria, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua.

Gasteizen Zarata eta Dardarak arautzen dituen Udal Ordenantza, 2010eko irailaren 24an Gasteizko udalbatzak onartua (2010eko abenduaren 1eko 137 zk. duen ALHAOn argitaratuta).

– Irisgarritasuna.

68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen.

– Segurtasuna, suterik gertatuz gero.

EKTaren (Eraikuntzaren kode teknikoak) "DB-Segurtasuna suterik gertatuz gero" oinarrizko agiria, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua.

1942/1993 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa, Suteetatik babesteko instalazioen Araudia onartzen duena.

Behe-tentsiorako araudi elektroteknikoa onetsi zuen abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua.

— Erabilera segurtasuna.

EKTaren (Eraikuntzaren kode teknikoa) "DB-SUA Erabilera eta irisgarritasun segurtasuna" oinarrizko agiria, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua.

Diru-laguntza eskatzeko epeak:

Ez da eperik finkatzen, hiri lurzorurako goragoko mailako araudiak edo legeak ezarri ezik.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 2an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE